

noaue

Mariaje Imaz, Udarregi ikastola:
“Ikasleak beraien artean
harremantzea garrantzitsutzat
jotzen dugu”

Zumarte Musika Eskolak
ikastaro ugari iragarri ditu

Euskararen Eguna, iruditzen



Udal gobernu taldea:
“2021erako udal aurrekontuak
inoizko sozialenak izango dira”



OPARITU ILUNABARRIK GOXOENA

SunsetBastian

www.sunsetbastian.eus · reservas@sunsetbastian.eus · @ssunsetbastian



G15 GIPUZKOA
HIGIEZINA ELKARTEA

G15 USURBIL

HIGIEZINA | INMOBILIARIA



PISUA SALGAI

118 m2ko pisua Kale Nagusian.
3 gela, 2 bainugela,
Garajearekin.

688 739 733

Etxebeste Kalea 15, USURBIL g15usurbil@gmail.com



Ilargiaren egutegia 2021

Alkartasunaren dendan salgai eta
on line www.alkartasuna.eus webgunean

Jakoba Errekondok garaiko uztak eta baratzea, fruitu arbolak eta basoko lanak.
Pello Zabalak aukeratutako esaerak.
Xabier Ormaetxea Akizuk ilargiaren eragina eta saiokak.
Maria Thunen egutegi biodinamikoarekin osatua.



MARIA THUNEN®
CALENDARIO DE
AGRICULTURA BIODINÁMICA
2021
EL ORIGINAL DESDE HACE 59 AÑOS
A PARTIR DE ENRIQUES CON LAS CONSTRUCCIONES
ELABORACIÓN
MARIA THUNEN - MATTHIAS K. THUNEN

Albisteak iruditan

Bi istripu izan ziren iragan astean N-634 errepidean

Usurbil alderik alde zeharkatzen duen N-634 errepidea albistea izan da azken egunotan behin baino gehiagotan. Iragan astean bi istripu izan ziren; azaroaren 30ean, Aginagan, Galardiko gasolindegitik gertu, kamioi eta auto baten artean. Zauritu bat eragin zuen. Abenduaren 2an jazo zen bigarren istripua; errepide berean, baina lanetan duten Txikierdi-Troia eremuan. Tarte horretan mendi magala egonkortzeko Gipuzkoako Foru Aldundia egiteko den lanengatik, Usurbil aldera etortzeko errei bat itxita izango da hiru hilabetez. Zonalde honetan jazo zen iragan asteko bigarren istripua, bi ibilgailuen artean. Ezbeharrean pertsona bat zauritu zen.

Semaforoek kudeatuko dute egunero 24 orduz, ibilgailuen joan etorria. Horrez gain, pare bat ohar Troiako pasabideari dagokionean. Oinezkoentzat dakizue-nez, errepidea zeharkatzeko semaforo



Kalezarretik behera Troia aldera autoz doazenek, ezin dute N-634 errepidera sartu Donostia aldera joateko.

bat jarria zegoen. Lanok iraun artean semaforoa ez da martxan izango. Bigarren oharra; Kalezarretik behera Troia aldera autoz doazenek, ezingo dute N-634 errepidera sartu Donostia aldera joateko. Usurbil aldera doan noranzko bidea

baliatu ahalko dute. Aipatu moduan, Donostia aldera doan erreia ez. Egunotan goizean goiz nahiz eguerdi partean, ohikoak bilakatu dira, zenbait uneetan Kalezarko autobus geltoki pareraino ere heldu diren auto-ilarak.

Laburrean

500eko intzidentziaren bueltan

Covid-19agatik eremu laranjan hasi genuen iragan astea, abenduaren 1ean gorri iraigar ginen eta hilaren 4an berriz zonalde laranjara. 100.000 biztanleko 500 kasuko intzidentziaren bueltan ibili ginen.

Gripearen aurkako txertoa

Iaz baino %50ak gehiagok jarri du gripearren aurkako txertoa aurten. Kanpainak martxan jarraitzen du oraindik. Hitzordua hartzeko anbulatoriora deitu; 943 36 20 13.

Berrogeialdian daudenentzat oharra

Udalak atez ateko sistema egokitu du Covid-19a izan edo berrogeialdian dauden etxeetarako. Kasu horietan, berebiziko garrantzia du Atez Ateko bulegora deitzeak: 900 776 776.

noaqua

Kultur Elkarte
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkartea@noaqua.eus /// www.noaqua.eus
Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkari koordinatzailea:
Imanol Ubeda.
Idazkaria: Alaitz Aizpurua.
Diseinua: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua:
Imanol Ubeda, Aritz Lasarte,
Itxaso Orbegozo.
Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noaqua.eus

Banaketa: Iñaki Irazusta,
Iban Maritxalar.
Tirada: 2.930 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noaqua.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Luis Aranalde

Etorkinak gurean

Gogoeta sakon bat irakurri berria dut “Hemen” aldizkarian. Hasieratik harpidedun naiz eta oro har gai oso interesgarriak jorratzen ditu. Ale honetako gaia da euskal gizartearen jarrera etorkinen fenomenoaren aurrean.

Bi atal ditu: hausnarketa eta lekukotza.

Hausnarketa: Dударik ez dago etorkinek ikaragarritzko arazoak sortu dizkietela herrialdeei. Ez dute asmatu (edo ez dute asmatu nahi izan) zer egin etorkinekin. Nahiz itsasoz, nahiz mendiz etorri giza-kiari zor zaion errespeturik ez dute izan askotan agintarien aldetik.

Datu txiki bat. Euskadik 2.181.919 biztanle ditu; horietatik 221.418 atzerritarak dira (%10a). Aldizkariaren ustez, oro har, nahiko ongi hartuak dira. Zalantzarik gabe arazoak izan dituzte: ihesi joan behar izatea, bidegabekeriak jasatea, zor zaien soldata ez ematea, besteak beste. Esan dezagun etorkin gehienak hemen, Morian, AEBetan eta beste mila lekutan arrisku latzean bizi direla, oztopo handiak gainditu behar dituztela: linguistikoak, kulturak, diskriminazioa, babes sarrerik eza. “Gizakia eta batez ere pobrea baldin bada, kapitalismo modernoarentzat



Amets Arzallusek Ibrahima Balderen bizitzaren kronika jaso zuen *Miñan* liburuan.

LUIS ARANALDE

“Esan dezagun etorkin gehienak hemen, Morian, AEBetan eta beste mila lekutan arrisku latzean bizi direla”

merkantzia bat besterik ez da” (Nair Sami, politologo frantse-
sa, jatorriz aljeriarra).

Panorama horren aurrean zer egin euskal gizarteak? Gizarte hartzailea ala harrera-gizarte izan? Bi eredu jartzen dizkigu azterlan horrek: “Aita Mari” alde batetik. Itsasontzi horren ekintza mardula eta paregabea izan da. Izan ere bere lana da hainbat mila itsasoan egin eta oinak lurrean jartzeko baimena ukatu ondoren arrisku bizian direnak jasotzea. Eta “Zaporeak”. Gobernu Kanpoko Erakundea da (GKE). Bere lan txalogarria Morian (Lesboseko

irla greziarra da) zehar egin du azken bolada honetan. Bertan pilatuta daudenen sabel hutsak betetzeko lain elikagai izan dezaten janari-bilketa kanpainak egin ditu.

Lekukotza: Amets Arzallusek Antia, gure bertsolari handia, Irungo “Harrera Sarean” laguntzaile ibili da. Han ezagutu zuen Ibrahima Balde, hogeita zazpi urteko mutil gaztea, Gineako Konakrin jaioa eta hala sortu zen bien arteko harremana. Ibrahima kamioi batean zebilen aprendiz Ginean, egun batean amak deitu zuen arte: anaia txikia falta zela etxean. Haren bila abiatu zen. Basamortua gurutzatu; pasatzaile, polizia, bahitzaileekin topo egin; egarria, gosea eta mina ezagutu. Mali eta Aljeria zeharkatu eta Libiara iritsi zenean jakin zuen bere anaia txikia hil zela patera batean. Egun bi hilabete falta zaizkio mekanika

kurtsoa amaitzeko eta ondoren Irunera itzuli nahi du. Han dauka zain lagun bat.

Ametsek argitaratu duen liburuak “Miñan” du izenburua (Miñan hitzak anaia txikia esan nahi du) eta Ibrahimaren bizitzaren kronika da (Susa argitaletxea, 2019).

Kritikoen esanetan kronika ez ezik, sentimendu handiz osatutako liburu da. Etorkinek sufritzen duten mina, sufrimena, bizitzaren gordintasuna azaletik bakarrik ezagutzen dugu. “Miñan” liburuak irakurle bakoitzaren barrua, kontzientzia eta errealitatea esnarazi nahi ditu. Aldi berean, etorkinek jasaten duten tratatu krudelak salatzen asmatzen eginda dago liburuak.

Elkarriketa batean hone-lazioen Amets Arzallusek: “Ibrahimari laguntzeko ez ezik, migratzaile guztiei laguntzeko ere idatzi dut liburuak, hobeto ezagutu ditza-gun eta, nolabait hurbilago sentitu”.

Etorkinei eta errefuxiatuei buruzko idazki batean, Arantxa Urretabizkaia idatzi du oraindik orain: “Bihotza uzkuertzen ez bazaizu, ez zara pertsona sana”. Hauekiko izan behar genukeen jarrera Aita Santuaren ustez hau da: “maitasunezko harrera egin, zaindu eta gizarteratu”. Hara hor programa polita.

Alazne Arruti Bengoetxea

Ainhoa Azpiroz Eizmendi

Ugaitz Agirre Zapirain

Luis Aranalde

Komikia



Ekitaldietarako ordaindu beharreko sarrerak ere, usurbilkultura.eus atarian eskuragarri

Covid-19ak eragindako pandemiak bizitzako eremu guztietan egokitu beharra ekarri du; baita egiteko moduak aldaraztea ere; kultur-gintzan esaterako. Lehendik egoera prekarioa bizi zuten eta pandemiak egoera are gehiago zaildu dien sortzaileei plaza bat eskaini eta herritarrek kultur hitzordu interesgarriez goza zezaten Kultur Bira antolatu zuten uztailen hainbat herri eragileek Usurbilgo Udarekin elkarlanean.

Egitasmoa covid-19 garaio-tara egokitu zuten; beharrezko prebentzio neurri guztiak hartuta ospatu ziren ekitaldi guztiak. Besteak beste, sarrerak eskuratzeko modua ere aldarazi zuten; horretarako jarri zuten martxan usurbilkultura.eus atari berria. Gerora ere hila-



“Doako sarrerak eskatzeko ez ezik, ordainpekoak eskuratzeko aukera ematen du dagoeneko”, udal iturriek aditzera eman dutenez.

USURBILGO UDALA

**“Ordainketa onartuta,
QR kodea iritsiko zaigu
posta elektronikoko bidez”**

beteotan herrian antolatu izan diren beste hainbat ekintzeta-rako baliatu izan dena.

QR kodea jasoko dugu

Orain arte ekitaldietarako ize-na doan baino ezin zitekeen eman; web orrian erregistratu, gustuko ekitaldia hautatu, datu pertsonalak utzi eta gero, antolatzaileek egiten zuten zozketaren bidez esleitu izan dira doako sarrerak. Urrats be-

rri bat eman dute oraingoan; ordaindu beharreko sarrerak ere online eskuratu ahalko dira aurrerantzean, hilabete hone-tan bertan antolatu diren eki-taldietarako; “doako sarrerak eskatzeko ez ezik, ordainpe-koak eskuratzeko aukera ema-ten du dagoeneko. Joan nahi den ekitaldia aukeratu, sarrera kopurua zehaztu, eta modu seguruan ordaintzeko datuak eskatzen ditu: ordainketa onar-tuta, QR kodea iritsiko zaio erabiltzaileari posta elektroni-ko bidez”, Usurbilgo Udaletik berri eman dutenez.

Doako sarrerak, zozketa bidez

Doako sarrerari dagokionez, “zozketa bidez banatzen ja-rraituko dute; edukieraren ara-berako sarrera kopurua zozke-tatuko du sistemak jasotako eskari guztien artean”.

Ika-mika

Baso kontuak

Azaroaren 27ko NOAUA! aldizkariak artiku-lu bat ekartzen zuen ba-soaren etorkizunari buruz.

Bertako zuhaitzak landatzea litzateke egokiena, unean une-ko beharretara egokitutako ba-soa eta lurrak dituen beharren oreka mantentzen duena.

Gaur egun inguruko indus-trian gastatzen den egurra eu-kalipto da eta kanpotik ekar-

tzen dute, orduan lur-jabeak etekina atera nahi izatea nor-mala iruditzen zait.

Herriko lorezaintzarako zu-haitzak gehienbat kanpokoak dira adibidez, astigar ameri-karrak eta Europakoak baina Norvegiakoak. Espezie gehiago ere badaude, ez dira eukalipto bezain inbaditzaileak baina kanpokoak dira.

Ez dira oraingo Udalak lan-

datuak, ez dakit zein kolore-tako Udalak landatu zituen, ez dio axola, baina espero dezagun etorkizunean zerbait landatu behar badute bertako zuhaitzak landatzea.

Orain entzun eta irakurri ere egiten dut mendi guztiari Andatza deitzen zaiola, eta nik Irisasi mendia deitzen ikasi nuen men-di guztiari, ez hemen bakarrik, Orion ere hala deitzen diote.

Irisasira etortzen dira angule-tako bahi kirtanak eta atunetako pertxalak egiteko egur bila, nik hala entzun nien beti.

Toki bakoitzak bere izenak ditu, adibidez, Ziortza, Enuto, Etumeta, Lapurtoki, Sahatzu, Lohatzu, eta askoz gehiago ere badira. Andatza gainari bakarrik deitzen zaiolarik.

Herritar bat.

Josue
Igeltseritza
606 37 21 05
Atallu pol.28 USURBIL

www.noaua.eus
USURBILGO ATARIA


Uraitz, s.l.
Igeltseritza
Orokorra
693 059 392
uraitz@uraitz.com USURBIL

“Ikasleak beraien artean harremantzea garrantzitsutzat jotzen dugu”

Ia azken urte osoa berezia izan da pandemia dela eta. Ostalaritza eta beste hainbat sektore gogor jo ditu, baina eskolen kasuan ere erabateko birplanteaketa sortu du zenbaitetan. Udarregi Ikastolako zuzendariarekin, Mariaje Imazekin izan da NOAUA!.

NOAUA! Nolakoa izan da kurtso hasiera eta ondorengo ohitze prozesua Covid-19aren testuinguruan?

Mariaje Imaz, Udarregi ikastolako zuzendaria: Denboran a-tzera eginda, uztaileko jada esaten zuten komunikabideetan aurtengo kurtsoa berezia izango zela. Ziurgabetasun egoera horretan ez genekien oraindik zein eszenatokirekin egingo genuen topo. Aipatzen zituzten eszenatokiak hiru ziren: “normaltasuna”, egoera mistoa aurrez aurreko eta konfinatuen artean edo denak etxean konfinatuta. Gure egoera marraztea zaila zen orduan, oraindik irailera nola iritsiko ginen jakin gabe. Aurreko esperimentiarekin antolaketa eredu bat bageneukan denok etxean konfinatuta hasi beharko bagenuen ere. Mistoa zaila-



“Natura Bizi programa jarri dugu martxan kanpo espazioa aprobetxatuz psikomotrizitatea lantzen jarraitzeko”, adierazi digu Mariaje Imaz Udarregi ikastolako zuzendaria.

MARIAJE IMAZ

“Psikomotrizitatean izan du eragina pandemiak. Txikienekin aspalditik lantzen genuen, baina orain psikomotrizitate gela ezin dugu erabili”

sun gehiago sortzen zizkigun, eszenatoki horretan egon gabe geunden eta antolaketa lan handia eskatuko zigun horrek. Aurrez aurrekoa izan zitekeela uste genuen, eta horri aurre egiteko ezarritako hainbat neurri jarraitu beharko genituela:

musukoaren erabilera, distantziaren kontua... Uztailean gelak antolatu genituen talde txikiagotan lan egingo zuten taldeak marraztuta. Gure gela gehienak nahiko zabalak zirela ikusita, talde txikiak antolatzeari ez zitzaigun horren zaila egin, eta bikoizketa egiteko beharrik ez geneukala ikusita ongi moldatu ginen antolaketarekin. Abuztu amaiera aldera bestelakoak antolatu genituen, ikasturte hasierari lotutako harrerak eta gisa horretako kontuak. Gurasoekin bilerak egin genituen baita ere,

dena aurrera nola eramango genuen azaltzeko.

Aldaketa nabarmenik egin behar izan al duzue?

Norbera babesteko neurriez gain, berrantolatu egin behar izan ditugu ordutegiak, goiko eraikinekoak eta behekoak ez nahasteko. DBHko ikasleek jarraian egiten dute egunerokoa, eta arratsaldetan ez dute klaserik izaten. Sarrera-irteeretan elkar ez topatzeko aurkitu dugun modua hori izan da. Goizago sartu eta berandago ateratzen dira zaharrenak, txikiagoekin ez topatzeko. Jolasgaian ere, espazioak banatu behar izan ditugu maila arteko kontaktuak murrizteko. Berez maila arteko harremanak lantzeko proiektuak martxan geneuzkan azken urteetan, baina hori guztia ahaztea tokatu da momentuz, eta asko murriztu da gainera. Psikomotrizitatean izan du eragina pandemiak baita ere, txikienekin aspalditik lantzen genuen, baina orain psikomotrizitate gela ezin dugu erabili. “Natura Bizi” programa jarri dugu martxan kanpo espazioa aprobetxatuz psikomotrizitatea lantzen jarraitzeko.

“Kanpo espazioek aukera gehiago ematen dituzte harremanetan sakondu eta bestelako dinamika martxan jartzeko”

NOAUA! Kanpo espazioen erabilera zabaltzeko duzuela nabari da herrian.

Mariaje Imaz: Lehenagotik ere kanpo espazioaren erabilera pixkanaka lantzen hasita geunden, eta egoera hau baliatu dugu lanketa horrekin jarraitzeko. Egun osoa ikastola barruan pasatu beharra, distantziak eta musukoa jarrita iruditzen zitzaigun gogorra

izan zitekeela, eta herrian badaude erabiltzeko moduko espazioak bestelako dinamika martxan jartzeko. Ikasleak beraien artean harremantzea garrantzitsutzat jotzen dugu. Konfinamentuan bakoitza bere etxean egonda, eta orain distantziekin eta musukoarekin, neurri handi batean galdu egiten da harremana eta harremantzeko gaitasuna.

Zentzu horretan, kanpo espazioek aukera gehiago ematen dituzte harremanetan sakondu eta bestelako dinamika martxan jartzeko. Materiala ere eskuragarri jarri genuen, eta halako ordutegi eta material txantilo bat egin genuen maila bakoitzak leku eta material jakinak erabiltzeko, eta gainontzekoekin ez gainjartzeko. Udalarekin kontaktuan

jarri ginen zein espazio erabil genitzakeen finkatzeko, eta maila batzuk gehiago eta besteak gutxiago, denak ari dira erabiltzen kanpo espazioak eguraldi ona denean. Haur Eskolarekin ere kanpo espazioan lanketak egiteko proiektu bat jarrita daukagu martxan, eta guraso asko ere lanean ari dira haur txikienekin lanketa hori egiteko.

“Hainbat zerbitzu eskaintzen ditugu, eta horiek ere neurri zorrotzekin bete behar ditugu”

NOAUA! Ikastolaren barne antolaketaz gain, bestelako zerbitzuak ere eskaintzen dituzue Ikastolan, jangela edo autobusa, esaterako. Horietan ere neurriak hartu behar izan zenituzten, ezta?

Mariaje Imaz: Guk hainbat zerbitzu eskaintzen ditugu, eta horiek ere neurri zorrotzekin bete behar ditugu. Behin gelak antolatuta, horri heldu genion. Zaintza zerbitzuak ere eskaintzen ditugu goiz eta arratsaldetan, eta geletan antolatutako talde txikien logika hori jarraitu behar zuen zerbitzu horrek, bai eta gainontzekoek ere, dela jangela, dela autobus zerbitzua.

Horrenbeste neurri hartuta, kasu positibo asko izan al dituzue?

Etxean egotea tokatu zitzaionak jada itzuli dira, eta betiko martxan dabilta. Hezkuntzara egunero bidali behar izaten ditugu konfinatuei buruzko datuak, eta irakasleek ere kontrola eraman behar izaten dute. Irakasleren bat ere egon da hamar egun etxean, eta ordezkapenak egiteko ahal izan dugun bezala moldatu behar izan dugu.

Ikastolen Elkartetik jarraitzeko moduko pauta batzuk ematen al dizkizute?

Mintegiak oso maiz izaten ditugu, eta denbora guztian hartuemanen egoten gara beste



“Lehenagotik ere kanpo espazioaren erabilera pixkanaka lantzen hasita geunden, eta egoera hau baliatu dugu lanketa horrekin jarraitzeko”.

MARIAJE IMAZ

“Pandemiaren hasieratik izan dugu Ikastolen Elkartearen laguntza, bai antolatzeko bai materialari begira ere”

ikastolekin eta Elkartearekin. Zentzu horretan erabateko laguntza izaten dugu, eta gure esperientziak partekatzen ditugu. Pandemiaren hasieratik izan dugu laguntza, bai antolatzeko bai materialari begira ere.

Gogorrena zer izan da, oraingo egoerara moldatzea edo martxoan konfinatu beharra?

Zerbait bazetorrela bagenekien martxoko konfinamendua baino aste batzuk lehenago eta

bilerak egiten hasi ginen etor zitekeen eszenatoriari erantzun ahal izateko. Bosgarren mailatik aurrera ordenagailuekin lan egitera ohituta daude, eta hor ez zitzaigun horrenbesteko aldaketarik irudit. Internetarako konexiorik ez duten etxeak ere oso urriak dira, baina aukera eman zitzaion Ikastolen Elkartetik konexio hori izan zezaten roter baten bitartez. Meet bidez eta emaila erabiliz ekin genion egoera berriari, eta modu ordenatuan liburuen bila ere etorri ziren Ikastolara. Moldatu ginen, eta nahiko ondo esango nuke nik. Inkesta bat pasatu genien familia eta ikasle zaharrenei antolaketa fintzeko eta beharrezko hobekuntzak egiteko. Formakuntza saioak egin genituen online Ikastolen Elkartek an-

tolatuta, bai zuzendaritzaren ztat bai eta irakasleentzat ere. Lan egin genuen gau eta egun, eromena izan zen. Pixkanaka neurria hartu genion, eta herri mailan ere jendea laguntzeko hainbat ekimen izan ziren eta hor parte hartzen ere saiatu ginen.

Gabonetako ekitaldiak, kolokan

NOAUA! Gabonak ia gainean ditugun honetan, azken egunean abestera atara ohi zarete, eta San Tomas eguna ere ospatu ohi duzue. Zer gertatuko da aurten gisa horietako ekitaldiekin?

Mariaje Imaz: Aurten horrelako ospakizunik ez dugu egingo, ez behintzat aurreko urteetan bezala.

Aztartzen ari gara gure artean eta ikastola barruan zerbait egitearen aukera, baina oraindik ez dugu ezer erabaki. Ez ditugu ikasle guztiak espazio berean nahastu nahi.



Oraindik ez dute erabaki zer egingo duten Eguberrietan.

Usurbil Autoak
MEKANIKA-KARROZERIA

SUSTITUZIO KOTXEA DOAN!

ZUMARTEGI INDUSTRIALDEA

943 36 10 79

Kima
MASAJE LEKUA

· KIROL MASAJEA · MASAJE TERAPEUTIKOA

Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97

EAJ, banda zabala landa eremu osoan bermatzearen alde

Usurbilgo EAJ-PNV udal taldeak landa eremu osoa hedatu nahi du banda zabala eta hori bermatzeko neurriak har ditzala eskatu dio udal gobernari.

Telekomunikazioetarako banda zabala landa eremuko txoko guztietara zabaltzeko konpromisoa hartua du Gipuzkoako Foru Aldundiak. Josune Urkola EAJ-ren bozeramailearen esanetan, "txalogarria deritzogun ekimen honek Gipuzkoako udal guztien ezinbesteko konpromisoa eskatzen du. Elkarlan honi esker ahal izango da gaur egun gure lurraldeko herrietako hiri-eremuetan bizi garenok ditugun komunikaziorako goi-mailako azpiegitura eta zerbitzuak landa eremuetan bizi direnei ere helaraztea".

Covid-19k eragin duen testuinguruak zerikusia izan du Aldundiak iragarritako neurrian. Telanelan aritzeko ezinbestekoa da banda zabalaren estaldura osoa. "Horregatik, guztiok, bizi garen eremuan bizi, bermatuta izan behar dugu telekomunikazioetarako banda zabala etxe guztietara heltzeko aukera modu egokian", azpimarratu du Josune Urkolak.

Banda zabala landa eremue-



Foru Aldundiak banda zabala landa eremuko txoko guztietara zabaltzeko konpromisoa hartu du. "Ekimen honek Gipuzkoako udal guztien ezinbesteko konpromisoa eskatzen du", dio EAJk.

JOSUNE URKOLA, EAJ
"Aldundiak bultzatzen duen ekimena gauzatzeko, udal gobernua dagozkion bitartekoak jarri behar ditu"

tako etxebizitzetara heltzeko kostuaren %95era arte Aldundiaren eta tokiko udalen artean ordaintzea aurreikusi da, bakoitzak erdia jarritz eta gainontzekoa (%5a edo gehiago) enpresa operadoreak.

Honi lotuta, EAJk hiru eskaera egin dizkio gobernu taldeari:

1.- Usurbilgo Udalak bat egin dezala Gipuzkoako Foru Aldundiarekin ekimen hau Usurbilgo landa eremuetan gauzatzeko dagozkion bitartekoak jarriaraz.

2.- SETIDek (Telekomunika-

zio eta Azpiegitura Digitalen Estatu Idazkaritzak) duen Usurbilgo landa eremuetako egoeraren erradiografia kontuan izanik, Udalak bere gain hartu dezala udalerriko landa-eremuetako etxebizitza eta biztanleen eguneratutako azterketa bat egitea eta emaitza hauek, bistaratu eta dokumentatu, Foru Aldundiari helaraztea usurbildar orok banda zabaleko zerbitzuetara heltzeko aukera eta eskubidea bermatzeko.

3.- Hau gertatzeko ordea, urtero "zuritze" prozesua egin eta aitortpena eskatu behar da, "beraz banda zabala izan ez eta zuritu gabeko eremuen identifikazioa burutzeko konpromisoa" har dezala eskatzen dio Usurbilgo EAJk EHBilduren udal gobernu taldeari.

Gaztelekutik Txuri Urdinera

Hiru irteera antolatu ditu Gaztelekuak Donostiako Txuri Urdinera, gazteen neguko oporraldian; DBH3koen-

tzako abenduaren 21ean, DBH2koentzat hilaren 23an eta DBH1ekoentzat hilaren 30ean. Txango hauetarako guraso bai-

menak Gaztelekuan eskuratu beharko dira:

■ gaztelekua@usurbil.eus

■ 943 371 050.

Asteburu honetan tailerra Santuenean

Gabonetako habi apaingarriak lantzeko tailerra antolatu du Santuenea Auzo Elkarteak asteburu honetarako, larunbat eta igandean (abenduak 12 eta 13), 16:00etan hasita elkarteko egoitzan. Segurtasun neurriak beteta egingo da. Bertan sortutako lanak etxeak apaintzeko baliatuko dira, abenduaren 18an 19:00etan Santueneko plazan zuhaitza piztean.

KzGunea, arratsalde zabalik

Arratsalde zabalduko dute astelehenetik ostiralerara abenduaren 22ra arte, 16:00-20:00 artean. Datozen ikastaroen artean; abenduaren 16tik 17ra, "Online izapideak Osakitzarekin", 18:00-20:00 artean. Bertaratzeko aurrez hitzordua eskatu: 943 023 684
 tutor.usurbil@kzgunea.net

Indarkeria matxista Covid-19 garaian aztergai

"Indarkeria matxista, Covid-19aren testuingurua: nola egingo diogu aurre Usurbilen" saioa abenduaren 17an 18:30ean Suteagin. Sarrerak doan eskuratzeko izena eman abenduaren 14a baino lehen, usurbilkultura.eus atarian. 78 laguntzako lekua egongo da.

ALDAMU

KONPONKETAK
 KALE NAQUSIA 10- atzekoaldea
 943 372 795

ZALDIGAIN
 ERREMENTARIA
 • Burnia, inox, altzairua eta corten altzairuarekin lan egiten dugu.
 • Barandilak, balkoiak, eskailera dekoratiboak, solairuarteak....
 www.zaldigain.com • info@zaldigain.com
 Tfno. 943593303 • Mugikorra: 677463867
 Fax. 943300045

ERAMATEKO!!!

 • EGUNEKO MENUA
 • KARTA
ARTZABAL (ESKANEATU QR KODEA IKUSTEKO)
 BASERRIA • JATETXEA
 www.artzabaljatetxea.com 943 36 91 39

**PREZIORA GEHIEN
HURBILTZEN
DIRENEK, PASA GABE,
ESKAPARATEKO
BERAIEN OPARIA
AUKERATUKO DUTE!**

Euskadi, ezaguna, bira-común

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

GOBIERNO VASCO

GOBIERNO VASCO



Usurbil
Udala

huribilago

preziyo juxtua

• U S U R B I L •

AZAROAREN 20TIK ABENDUAREN 12RA

**Telebista bat, patinete elektriko bat,
urdaiazpikoa, haurrentzat arropa,
askotariko jaki eta edariak, arropak,
haurrentzako jostailuak, etxeko tresnak...
eta hurbileko beste dozenaka produktu**

PARTE HARTZEKO:

- 1 Erosi Usurbilgo dendetan**
- 2 Eskuratu parte hartzeko txarteltxoa**
- 3 Asmatu Zubiaurrenea 3 kalearen atzealdeko lokalean kokatua dagoen eskaparatearen balioa, pasatu gabe**
- 4 Bota txarteltxoa dendako kutxan edo bidali balioa preziyojuxtua.huribilago.com helbidearen bidez**

KOMERTZIO PARTE-HARTZAILEAK

AGINAGA SAGARDOTEGIA • AITZAGA TABERNA • AIZPURUA OKINDEGIA • ALDAMU OINETAKO KONPONKETAK • ALKARTASUNA NEKAZAL KOOPERATIBA • ANE ILEAPAINDEGIA (ARTZABAL) • ARRUTI HARATEGIA • ARTZABALGO BASERRI-JATETXEA • BIXEN ILEAPAINDEGIA • BORDATXO TABERNA • ESNAOLA SUPERMERKATUA • IMANOL TXAPARTEGI HARATEGIA • N.I. ILEAPAINDEGIA • INTZA ILEAPAINDEGIA • IRATZE NATUR DENDA • ITURRALDE FARMAZIA • ITZIRA ERAIKUNTZAK • JUANTXO BURDINDEGIA • KAFFA KAFETEGIA • LAUKOTE • LAUROK LIBURUDENDA • LIZARDI LIBURUDENDA • LURDA MERTZERIA • MARIJE JANTZIDENDA • MIKEL ARRAKATEGIA • OPIL GOXO • OTAR GOXO • SAIZAR SAGARDOTEGIA • TXIRRISTRA TABERNA • USURBIL OPTIKA

Ixak Arruti, gitarra irakaslea: “Ondo pasatzea da asmoa. Musikarekin gozatzea”

Zumarte Musika Eskolak ikastaro sorta bat iragarri du. Eskaintza honek bi ezaugarri nagusi ditu: ez da aurrez inolako ezagutzarik behar eta adina ez da muga. Beraz, gitarra edota txalaparta ikasteko gogoz bazaude, orain duzu aukera. Urtarrilean hasiko dira ikastaro gehienak baina izen-ematea abenduaren 13an amaituko da.

NOAUA! Eskaintza honek ez du Zumarteren ohiko matrikulario kanpainarekin zerikusirik, ezta?

Ixak Arruti: Ez, hau beste kontu bat da. Beti izan dugu horrelako eskaintza berri bat egiteko gogoia. Eta adina zabaltzeko gogoia ere bai. Zumarteren lehengoko eraikinak ordea, ez zigun horretarako aukerarik ematen. Baina orain, eraikin berriarekin, ikastaro hauek proposatzeko moduan gaude.

+55 ageri da ikastaro batzuen aldameneari. Adineko jendeari zuzenduta dauden seinale.

Bi ideia nagusirekin egin dugu proposamena. Batetik, Zumarteren eskaintza garai berrietara egokitu nahi dugu. Kantu moderno, musika elektronikoa



Zumarte Musika Eskolak iragarri dituen ikastaroen artean da gitarra. 55 urtetik gorakoek Ixak Arrutiarekin ikasteko aukera izango dute.

IXAK ARRUTI

“Zumarteren eskaintza garai berrietara egokitu nahi dugu. Txalaparta eta gitarra ikastaroez gain, kantu moderno, musika elektronikoa edota grabazioak egiteko ikastaroak antolatu ditugu”

edota soinu teknikari buruzko ikastaroak antolatu ditugu.

Bestetik, adin tarte zabaltzeko nahi dugu. 0-3 urteko haurrei nahiz 55 urtetik gorakoei.

Garai berrietako ikasgaiak aipatu dituzu, baina txalaparta ikastaro bat ere antolatu duzue.

Usurbil txalaparta munduan izan denarekin, galdua bezala ikusten genuen. Pena ematen zigun eta txalaparta ikastaroa antolatzea pentsatu dugu. Sergio Lamuedra hernaniarrak eskainiko du eta eminentzia bat da txalaparta munduan.

Gitarra ikastaroa zuk eskainiko duzu. Ezagutzarik behar da edo zerotik hasiko al zarete?

Asmoa da 55 urtetik gorakoenetzako talde bat osatzea. Gehienbat jubilatuei begira dago pen-

tsatuta. Bada gitarra ikasteko gogoia bai, baina orain arte aukerarik izan ez duenik. Haiei aukeratzea emateagatik antolatu dugu. Gitarra ikasiko dugu zerotik hasita. Eta euren gustuko kantak ikasteko aukera izango dute. Boleroak edo kanta modernoxeagoak.

Ikasleek beraiek kantak proposatzeko aukera izango dute.

Noski baietz! Ondo pasatzea da asmoa. Musikarekin jolastu eta gozatzea.

Beste ikastaroak ere antzeko filosofiarekin egingo dira, ezta?

Denak horrela egingo dira. Asmoa da aurtengoak hastapen ikastaroak izatea. Eta hurrengo urteei begira, hastapen ikastaroa egin dutenek sakontzeko aukera edukiko lukete.

Jende helduaz ari gara, baina lokalean entseatzen dagoen gazte talde batentzat adibidez, interesgarria izan daiteke grabaketa ezagutza batzuk izatea ezta?

Hori da, lokalean grabazio bat egin nahi badute, “Soinu teknika eta grabazioa” ikastaroan ikasitakoa oso baliogarria izango zaie.

2021 urterako antolatu dituzten ikastaroak

Txalaparta

Iraupena: Urtarriletik ekainera.
Maiztasuna: Asteazken ordu bat.
Eguna: zehazteko.
Prezioa: 46 euro/hilean.
Irakaslea: Sergio Lamuedra.

Dj eta musika elektronikoa

Iraupena: Urtarriletik ekainera.
Maiztasuna: Asteazken ordu bat.
Eguna: asteazken arratsaldea.
Prezioa: 35 euro/hilean.
Irakaslea: Telmo Trenor.

Soinu teknika eta grabazioa

Iraupena: Urtarriletik ekainera.
Maiztasuna: Asteazken ordu bat.
Eguna: Ostiral arratsaldea.
Prezioa: 35 euro/hilean.
Irakaslea: Jurgi Taboada.

Gitarra +55 urte

Iraupena: Otsailtik ekainera.
Maiztasuna: Asteazken ordu bat.
Eguna: Ostegun goiza.
Prezioa: 35 euro/hilean.
Irakaslea: Ixak Arruti.

0-3 haur musika

Iraupena: Urtarriletik ekainera.
Maiztasuna: Hilabeteaz ordu bat.
Eguna: Larunbat goiza.
Prezioa: 60 euro.
Irakaslea: Aritz Larrea.

Kantu moderno

Iraupena: Urtarriletik ekainera.
Maiztasuna: Astero 30 minutu.
Eguna: Zehazteko.
Prezioa: 46 euro/hilean.
Irakaslea: Ainara Ortega.

Musika mintzaira +55 urte

Iraupena: Urtarriletik ekainera.
Maiztasuna: Astero ordu bat.
Eguna: Astearte goiza.
Prezioa: 35 euro/hilean.
Irakaslea: Amagoia Mitxelena.

Izen-ematea:

- Online egin behar da, zumarte.eus web orrian.
- Epea: abenduak 13.
- Antolatzailea: Zumarte.

“Erraustegiak bere jarduera eten behar du”

“Inork imajinatzen al du baimenik gabe norbaitek bere negozioa martxan izatea? Agiriaren bat falta badu ez zaio irekiera baimentzen”. Zubietako erraustegiarekin ordea ez dela halakorik gertatzen ari ohartarazi eta haren itxiera eskatu zuten Gipuzkoako Batzar Nagusietan EHBilduk eta Elkarrekin Gipuzkoak.

Erraustegia beharrezko baimenik gabe lanean ari dela salatu zuten. Behin-behineko izaerakoa izan bazuen lehen baina Eusko Jaurlaritzak ez zion luzatu “baldintzak ez zirelako betetzen”.

Gezurretan aritzea leporatu zieten foru agintariei. “Beti balorizazio energetikoaz hitz egin dute eta ez da ezer balorizatu, Zubietako plantak erre besterik ez du egiten”, azpimarratu zuten.



“Beti balorizazio energetikoaz hitz egin dute eta ez da ezer balorizatu, Zubietako plantak erre besterik ez du egiten” salatu zuten EHBilduk eta Elkarrekin Gipuzkoak.

EHBILDU ETA ELKARREKIN GIPUZKOA

Erraustegia beharrezko baimenik gabe lanean ari dela salatu zuten abenduaren 4an

“Ez gara ezer ordaintzen ari”

EHBilduk eta Elkarrekin Gipuzkoak Batzar Nagusietan agerraldi bidez adierazitakoa gezurtatu nahi izan zuen ordu

gutxiren buruan, Foru Aldundiko ingurumen diputatu eta Gipuzkoako Hondakinen Konsortzioko (GHK) lehendakari Jose Ignacio Asensiok. “Talmagarria da zerbitzu publiko baten, hain konponbide ona eman diogun hondakinen kudeaketari buruzko informazioa politikoki manipulatu nahi izatea”, erraustegiak beharrezko baimenak dituela adierazita.

Diru kontuak ere ahotan har-

tu zituen. “Ez gara ezer ordaintzen ari”, aipatu zuen. GHK-ren teknikari eta zuzendaritzak kontratuko berme guztiak betetzen direla egiaztatzean, jarduera hasierako “akta sinatuko da eta orduan kontratuak finkatutakoa ordaintzen hasiko gara”, iragarri zuen.

Asensiok bere eskariz bezperan Batzar Nagusietan agertze-ko eskaera erregistratu zuela ere berri eman zuen. “Lasaitasun mezua helarazi nahi diet herritarrei. Beti bezala, gardentasun osoz eta arduraz jokatzeko ari dira Aldundia eta GHK”, zioen.

Agerraldi hau egin eta ordu gutxira, Eusko Jaurlaritzak erraustegiak balorizazio energetikorako behar zuen behin-behineko baimena, egun batzuk lehenago ukaturikoa luzatzea baimendu ziela jakinarazi zuen Asensiok.



BURUNTZALDEA
KIROLAK



KIROLDEGIKO TXANDAK, INTERNETEZ

Abenduaren 10etik aurrera

tramiteak.buruntzaldea.eus






“2021erako udal aurrekontuak inoizko sozialenak izango dira”

Pandemia garai beteko 2021erako aurrekontuak aurkeztu ditu udal gobernu taldeak; inoizko aurrekontu sozialenak. Ekarpen bilketa fasean daude asteotan, abenduaren 23an hasierako onespina eman aurretik. “2021eko aurrekontuak Covid-19ak eragindako osasun krisiak eta horrek eragindako krisi sozial, ekonomiko eta ekologikoaren testuinguruan kokatu behar ditugu, derrigorrean”, adierazi dute udalgobernu taldek.

a

Inoiz baino argiago dute zein den une honetako lehen-tasuna, baliabide eta diru-sarrerak gutxitu arren; “gizarte babesa eta tokikoaren zaintza, izan ekonomikoa, izan kulturala, izan soziala”.

Espero zitekeen moduan, bizi dugun testuinguruagatik ohiko diru-bilketa eta sarreretatik %10ean gutxiago



“Aurreikuspenak bestelakoak baziren ere, %4 igoko dira 2021eko udal aurrekontuak”.

AURREKONTUAK 2021

Egungo testuinguruagatik, diru-bilketan %10 gutxiago jasoko du Udalak

jasoko du Udalak. “Guztira, 11.145.800 euro, aurreko ur-

tean baino 1.200.000 euro gutxiago”.

Foru funtsan ere, murrizketa

Murrizketa honetan eragin nabarmena izan du foru funtsaren %7ko murrizketak, 328.067 euro gutxiago jaso ditu Udalak. “Agindutakoa betetzea espero dugu, ez baita beti ho-

rrela gertatzen”. Horrekin batera, 2021eko udal-tasa eta zergei igoyerarik ez aplikatzea erabaki dute “udalen finantziario-gabeziak ezin dira herritarren gehiengoaren bizkar jarri behar. Une honetan, premia handiena dutenenganako elkartasuna betebeharrak politiko eta moralak da guretzat”.

12.882.050 euroko udal aurrekontua

Pandemia garai beteko udal aurrekontuak izateko ordea, bada nabarmenezko moduko albiste pozgarriak. Aurreikuspen guztien aurka, diru-sarreretan iazko aurrekontuekin alderatuta, %4 igoko dira 2021ekoak; guztira, 12.882.050 euroko aurrekontuez ari gara. “Albiste bikaina da, adierazle eta aurreikuspen guztiak kontrako norabidean zihozazelako”.

Igoera hau Udalak jasotako laguntzek eragindakoa da. Etorkizunean, Ugartondoko

urbanizazioan kokatuko den Txirikorda belaunaldi arteko etxebizitza komunitarioak “Ugartondoko Hitzarmen Juntarekin iaz lortutako akordioari esker, Udalari 1.423.000 euro ordaindu behar dizkiote, Txirikorda eraiki eta ordaintzeko”. Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Sailean Udalak eskatutako laguntzari ere baiezkota eman eta 640.000 euro jaso dituzte. 2021ean ekingo diote obren lizitazioari, urte berriko inbertsio garrantzitsuena izango da, eta honenbestez finantziario iturri guztiok datozen aurrekontuan islatuko dira.

Ezohiko diru sarrera hauek, inbertsioetan %41,04ko igoera izatea ekarri dute, 2,5 milioi euro arlo honetara bideratu ahal izatea, aurrekontu osoaren %19a. “Gure inbertsio maila izugarri handitu da” eta gastuak orekatzea ere ahalbidetu dio Udalari. Halere, pertsonal-goien eta diru-laguntzen ataleko gastuak igo dira. Ia 4,4 milioi eurokoak izango dira, aurrekontu osoaren %34,13, iaz baino %2,8 gehiago, “zerbitzu publikoaren alde egiten dugun apustuaren adierazgarri”. Tartean, lan enplegu publikoko eskaintzak prestatzeko langile

bat kontratatuko du Udalak, lanaldi erdian. Administrazio publikoak orohar duen “interinitate-tasa” murrizten joatea izango du erronka nagusia. Enplegu planetarako diru sarrera ere aurtengoarekin alderatuta bost aldiz handiagoa izango da 2021ean, 22.644 eurotik 108.495 euroko partida izatera igaroko da. “Diru honekin lau operario eta energia alorreko udal teknikarien soldatak ordainduko dira”. Testuinguru zail honetan kolektibo zaurgarrienetako kideen lan-munduratzeko sus-tatu nahi dute.

Laguntza lerro berriak

Aipatzekoa diru-laguntzen atala. Iaz baino 100.000 euro gehiago bideratuko ditu udal gobernu taldeak, %11,30 gehiago, dena ia milioi bat euro. “Hazkunde honen arrazoiak, hain justu, pandemiak azaleratu dituen behar sozialak estali eta gure ehun ekonomikoa sustatzea da. Zentzu horretan, nabarmendu eta txalotu behar da departamendu guztien artean egindako hausnarketa eta ahal-egina: egoera sozioekonomiko zail honetara egokitutako dirulaguntza politika birnorabidetzeko ahalegina, hain zuzen ere. Lerro batzuk egokitu eta dirulaguntza lerro berriak martxan jarriko ditugu”.

Garapen ekonomikora begira bi laguntza lerro iragarri ditu udal gobernu taldeak; hutsik diren lokal komertzialetan jarduera berriak martxan jartzeko alokairurako laguntzez gain inbertsio-gastuak ere lagunduko dira. Eta Covid-19ak eragin-



Era guztietako autonomoentzat %0 intereseko mikrokredituak martxan jartzeko asmoa du Udalak.

AURREKONTUAK 2021

“Garapen ekonomikora begira bi laguntza lerro iragarri ditu udal gobernu taldeak”

dako kalteak arintzeko laguntza berrietarako partida iragarri dute. “Esku artean ditugun ideien artean aipagarria da era guztietako autonomoentzat %0 intereseko mikrokredituak martxan jartzeko egitasmoa”.

Merkatu libreko etxebizitzaren alokairurako dirulaguntza lerroa ere martxan jarriko dute, alokairu prezio altuengatik eta lan-baldintza prekarioengatik etxebizitza alokatu edo erosteko zailtasunei aurre egiteko, ohartarazten duten moduan, “etxebizitza ez da eskubide herritar askorentzat” eta.

Usurbilgo sortzaileei zuzenduriko lerro bat ere zabalduko du, herrian dagoen kultur sortuntza handia ikusita. “Herriko sortzaileen erakusleihorako egitasmo bat lantzeko ere diru

partida gordea dugu”, Usurbilgo merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuen sektorea biziberbitzeko plangintzaren baitan.

Eskola Kirola ordaintzeko zailtasunak dituzten familia zaurgarri zuzenduriko laguntza; 5.000 euroko partida, arrakala sozialekin amaitzeko. Landa eremuan bizi diren herritarrei zuzenduta, pobrezia energetikoari eta arrakala digitalari aurre egiteko ere beste laguntza lerro bat aurreikusia du udal gobernu taldeak. Trantsizio ekologikoaren norabidean, “Usurbil 0.0” eta efizientzia energetikorako diru partidak iragarri dituzte.

Gizarte Larrialdietara ere 90.000 euro bideratuko dituzte, baina “beharrak ugarituz gero” partida handituko dute. Eta noski, aurreko urteetan “tokiko elkartegintza, herrigintza eta herri bizitasuna zaindu eta sustatzeko” laguntza lerro guztiei ere eutsiko die udal gobernu taldeak edota “kasuan kasu handitu egin ditugu”.

Zaintza ereduari buruzko parte hartze prozesua

Hainbat egitasmo ere martxan jartzekoak dira 2021ean. Pandemia garaietan gaurkotasun handiko gai bati helduko die; zaintza-ereduari buruzko parte hartze prozesua abiatuko dute udaberrian, Matia Fundazioarekin elkarlanean. Covid-19 garaiak agerian utzitako zaintza-krisiaren aurrean, “bistan geratu da zaintza eredu berrantolatu beharra dagoela”. “Nola zaindu nahi dugu?, Nola zainduak izan nahi dugu?” gaiei helduko die. Emagin elkarteak Beterri-Buruntzarako osatu duen zaintza erregimenaren diagnostikoa eta ekin-tzarako proposamen azterlana izango ditu abiapuntu.

Beterri-Buruntza aipatuta, eremu honetako mankomu-

nitatea sortuko da 2021ean, 25.000 euro gehiago bideratu dituzte egitasmo horretara.

Jatorri aniztasuna eta elkarbizitza egitasmoari segida ematera bideratuko dituzte beste 20.000 euro. Gai honetan ditugun jarreraren inguruko azterketa soziologikoa egin du Udalak, Usurbilgo migranteen lekuko-tzekin urte hasieran aurkeztu asmo duten dokumental bat ere osatzen ari dira. Eta segidan, jatorri aniztasuna kudeatzeko plan estrategikoa lantzen hastekotan dira.

Kirolaren arloan antzeko plana disenatu nahi dute, “kirol komunitate zabalarekin batera” bideratuko duten parte hartze prozesuaren bidez. Diagnosi sakon batekin hasi asmo dute.

36ko Gerrak Usurbilen izandako eragina aztertzeke aurten dokumentazio fasearekin abiarazitako 3 urteko egitasmoari segida emango diote 2021ean.

Hirigintza arloari lotutako egitasmo gehiago ere badira; Taxi bus zerbitzua hobetuko dute, udal jabetzako alokairu sozialeko etxeen konponketak bideratuko dituzte; etorkizuneko Usurbil marraztuko duen Hiria Antolatzeke Plan Orokorra (HAPO) hasieraz onartu asmo dute 2021. urte amaieran. Ia 100.000 euro bideratuko dituzte aurre egin beharreko egitasmo honen lanketara (txostenak, parte-hartze prozesuak...).

Eta horrekin batera, zenbait proiektu idaztea ere aurreikusten dute; saneamenduari

lotutakoak, Santuenearen urbanizazio proiektu berria, Aginagako Elutx eta kaxkoa lotzeko oinezko bidea, Osinalde industriagunea berritzeko urbanizazio proiektua, espazio berdeei lotutako herri parte hartze prozesua...

Diru-poltsa bat, badaezpada

Hau gutxi ez balitz, “100.000 euro gorde ditugu, aurrekusi gabeko gastu edo egitasmoei aurre egiteko”. Diru-poltsa ezin garrantzitsuagoa udal gobernu taldearentzat, 2020an gertatu den moduan. “Covid-19ak eragindako ezustekoei hortik erantzun diegu”. Udal aurrekontu hauei buruzko zehaztasun gehiago hurrengo asteotan.

Euskararen Eguna, iruditan



Udarregi Ikastolako ikasleak kalera atera ziren Euskararen Eguna ospatzera.



Euskararen Egunean, Sustrai Colina eta Jone Uria bertsolariak kantari aritu ziren Sutegin. Biharamunean, Onintza Enbeitak euskalgintza, pandemia eta feminismoa hartu zituen hizpide. Bi ekitaldiok Usurbilgo Euskaraldia batzordeak antolatu zituen.

‘Preziyo Juxtua’ sariketa amaitzear da

Hurbilagok ‘Preziyo Juxtua’ izeneko kanpaina jarri du martxan. Argazkiko eskaparetan dauden produktu guztien preziora gehien hurbiltzen direnek saria eskuratuko dute. Adi, abenduaren 12an amaituko da-eta sariketa.

Joko-arauak

- Erosi Hurbilago elkarteko saltokietan.
- Eskuratu parte hartzeko txarteltxoa.

■ Eskaparearen balioa kalkulatu, baina pasa gabe.

■ Txarteltxoa bete eta Hurbilagoko dendako kutxan bota edo bidali balioa preziojuxtua. hurbilago.com Internet helbidearen bidez.

Kalkulatu prezioa, “baina pasa gabe”

“Preziora gehien hurbiltzen direnek, pasa gabe, eskapareteko beraien oparia aukeratuko dute”, kanpainaren sustatzailerik aditzera eman dutenez.



Eskaparetea Kontzeju Zarra 13 kaleko lokalean topatuko duzue. 2015ean, Kilometroak Gattunk dendaren egoitza izan zen toki berean.

Sariketa hau bideratzeko, eta Eusko Jaurlaritzaren laguntza jaso du.

Inaxio Ameztoi
Ameztoi upategia, Getaria

Etxeak

Bertakoak, kalitatezkoak, gureak.

Orain, inoiz baino gehiago, erosi
ditzagun gure baserritarren
produktuak.

Erosi geurea,
erosi Gipuzkoa





noaUA




**ABENDUKO ZINEA
SUTEGI AUDITORIOAN 18:00**

LANDER GARROREN FILM BAT



**2 URTE, 4 HILABETE
ETA EGUN BAT
FILMA eta SOLASALDIA
Abenduak 13 igandea**

IMANOL RAYOREN FILM BAT



**HIL KANPAIAK
FILMA
Abenduak 20 igandea**

Sarrerak: aurrez salgai 6 eurotan usurbilkultura.eus plataforman.
Bazkideek 4 eurotan eskuratu ahal izango dute sarrera bat NOAUA!ko egoitzan.

noaUA



Atxega jauregia: “Menua eta ogitartekoak eskaintzen ditugu etxera eramateko”

NOAUA! Irekita jarraitzen du Atxega jauregiko jatetxeak baina soilik etxera eramateko zerbitzuarekin. Zer ari zarete eskaintzen bezeroari zehazki?

Atxega Jauregia: Menua eskaintzen dugu etxera eramateko. Hemen bertan prestatutako janaria batez ere, produktu ahalik eta kalitate hoberenekoa erabiltzen dugu eta bertakoa. Herriko merkatariei erosten diegu. Ogitar-tekoak ere badauzkagu nahi izanez gero.

Astelehenetik ostiralera
Bazkari eta afariak, biak eskaintzen dituzue?

Astelehenetik ostiralera egoten gara irekita. Bazkariak



“Langileekin egiten dugu lan gehienbat, baina norbanakoentzat ere ematen dugu zerbitzua”. Argazkia: Atxega.

ATXEGA JAUREGIA

*“Produktuak
herriko merkatariei
erosten dizkiegu”*

ematen ditugu batez ere, baina gauetan ere badaukagu aukera.

Norbanakoentzat ere bada zerbitzu hau edo langileekin

bakarrrik egiten duzue lan egunotan?

Ez, edonorentzat daukagu zerbitzua. Industriagunearen ondoan gaudenez, langileekin egiten dugu lan gehienbat, baina norbanakoentzat ere ematen dugu zerbitzua. Ez daukagu inolako arazorik horrekin.

Eskaera telefonoz egin behar da

Bertara hurbildu behar da janaria hartzera edo banaketa zerbitzua ere eskaintzen al duzue?

Eskaera telefono bidez egin behar da eta hemen bertan jaso behar da. Ez dugu banaketa zerbitzurik eskaintzen.

Olarrondo jatetxea: “Etxean egiten dugun janaria ari gara eskaintzen”

NOAUA! Eramateko janaria prestatzen ari zarete, baina zer da zehazki eskaintzen duzuen?

Olarrondo jatetxea: Etxean egiten dugun janaria ari gara eskaintzen: arroza, rissotoak, txipiroiak, bakailaoa, txerrikumea... ohikoa baino karta laburrago bat da prestatzen ari garena azken finean.

Egunero eskaintzen duzue zerbitzu hori?

Irekita diogunean, ez dugu esan nahi jatetxea irekita dagoenik, atek itxita baitaizkagu. Telefonoz bakoitzak nahi duena eskatzen du eta entregatu egiten dugu bakoitzak eskatutako lekuan. Hala ere, egun bateko aurrerapenarekin eskatu behar da janaria, ez dugu egunean bertan ematen. Egunero prestatzen dugu kan-



“Arroza, rissotoak, txipiroiak, bakailaoa, txerrikumea... Ohikoa baino karta laburrago bat eskaintzen ari gara”. Argazkia: Olarrondo.

OLARRONDO JATETXEA

“Janariarekin batera edateko nahi dena eska daiteke. Gehienbat sagardoa eskatzen digute”

titate jakin batzuk kontuan hartuta, horrela ez da ezer

alferrik galtzen. Ez daukagu horrenbeste baliabide jatetxe-kate handien moduan. Guk prestatu eta guk entregatzen dugu dena, eta enpresa familiarra dela kontuan hartuta ez gara horrenbeste. Gisa horretara moldatu besterik ez dugu. Bazkari zein afariak

eska daitezke, beti ere egun bat lehenago abisatuta, astelehenetik igandera.

“Banaketaz ere arduratzen gara”

Banaketaz zuek arduratzen zarete orduan, ezta?

Hori da. Sukaldeko ardura-dunak dauzkagu eta banaketaz arduratzen gara baita ere. Etxekook egiten dugu dena. Gizona eta semea banaketaz arduratzen dira batik bat, eta andrea sukaldean. Olarrondora etorri nahi badu norbaitek janariaren bila ez daukagu arazorik, baina banaketa zerbitzua eskainita erosoagoa da bezeroentzat norbait etxera joatea. Orokorrean, eskaera gehienak asteburuetan izaten ditugu, astean zehar askoz ere lasaiago ibiltzen gara.

Eskola Kirola sustatzen jarraitzeko bat eginik

Udatik gogor aritu dira lanean, neurri berrietara egokitu eta kirol eskaintza erakargarria prestatzen. Zorrotz bete dute eragileek zegokien ardura, zorrotz bete dituzte baldintzak gaztetxoek. Baina ez da aski izan. Urriaz geroztik, osasunerako onura anitz dakartzan Eskola Kirolarik gabe dira. Ulerkaitza zaie egoera. Halere, Eskola Kiroleko sustatzaileak, Usurbilgo kirol eragileak eta Udala, dinamizari berriz ekitea baimentzen zaienerako prestatzen ari dira. Elkarlanean bat eginik dira, lerrootan NOAUA!ri adierazi diotenez.

NOAUA! Ikasturtea ohi baino beranduago hasita, neurri zorrotzak hartuta... Hainbat egokitzapen eginda abiatu zenuten Eskola Kirola urrian. Halere eteteko agindua jaso zenuten berehala. Unea nola bizi izan zenuten?

Berez ohikoa Eskola Kirola urria hasieran abiatzea izaten da. Aurreko ordea egoera ziurgabeagatik, tarte bat uztea erabaki zen. Banakako kirol jarduerak jarri ziren martxan lehenik. Taldeetakoak bi aste beranduago. Ilusio guztiz hasi ginen, neurriak hartuta eta aste bate egin genuen. Kolpean etenaldia etorri zen.

Ikasturte hasieran hartu zenuen neurriak zorrotzak ziren ordea.

Eskola Kirolean ez da inolako arazorik egon. Hasieratik ahal zela haurrak ikastolako taldeetan mantentzea zen helburua, horrek talde berriak sortzea saihestuko zuelako. Eskola Kirola eten zenean ez zen kasurik. Kirola guztiz segurua da.

Kultur arloan aldarrikatu den moduan.

Bilera bat egin zen kirol eragile eta udal ordezkariekin. Protokolo orokorrak aurkeztu ziren.



Eskola Kiroleko sustatzaileak dinamizari berriz ekitea baimentzen zaienerako prestatzen ari dira.

ERAGILEAK

“Eskola Kirolean ez da inolako arazorik egon. Eskola Kirola eten zenean ez zen kasurik. Kirola guztiz segurua da”

Gero eragile bakoitzak guraso taldeekin bilera zehatzagoak egin zituen, jarduera bakoitzari zegokion protokolo zehatza azaltzeko. Hartu ditugun neurriak onak ziren, denok errespetatu ditugu; tenperatura hartu, eskuak garbitu, banakako ariketak... Ez zen erraza baina neurriak zorrotz bete ditugu. Neurrietara egokitu gara. Eskola Kirola bat-batean gertatzea, berriz atzera bueltatzea izan da.

Etenaldia nola azaldu zenieten gaztetxoek?

Haurrekin bildu ginen eta goitik zetorren agindu bat zela azaldu genien, ez zela beraien erantzukizuna. Gauzak ondo egin zituztela helarazi genien, eta horregatik eskertu genien. Ez zela amaiera bat, gero arte moduko bat baizik. Errudun ez

sentitzea eskatu genien.

Haien egunerokoan prebentzio neurriak zorrotzasun osoz bete dituztenean, “goitik” heldutako agindua ulertzea ez zen erraza izango.

Ez dute ulertu. Oso argi zioten ez zeudela ados eta askok “mania digute” hitza erabili zuten. Ez dute ulertzen, kalean ez dituztelako arau horiek betetzen. Eta Eskola Kirolean zorrotzagoak izanda, zergatik ezin dugu kirola egin, parkean ia neurririk gabe eta arrisku gehiagorekin beste era batera bageaude? Hori ez dute ulertzen. Erabaki honekin kaltetuenak beraiek dira. Ulertezina den desoreka dago. Agindu bakarra eta bera da denontzat, baina leku guztietako errealitatea ez da berdina. Usurbilen, herrigunean ikastetxe bakarra dago, haur ia denak bertako ikasleak dira. Gelan elkarrekin gaude, kopuru handiagoan, denbora gehiagoz. Aldiz, Eskola Kirola, denbora tarte txikiagoan, jende berdinarekin eta arau berak errespetatuz ezin dugu aurrera eramanez. Aginagan eta Zubietan ere Zirimara martxan jarri da eta Usurbilen bezala, eskoletako burbuila berdinak mantendu dira. Halere ezin dute ekintza aurrera eramanez.

Ulertezina da hori.

Gaztetxoek zer moduz daramate etenaldia?

Kalean jolasean dabilta, pozgarria da baina ez da gauza bera. Kirola ere egin nahi dute eta parkeak ezin du ordezkatu Eskola Kirola. Aspertuta daude parkean izateaz, ohiko errutinara, tartean Eskola Kirola itzultzeko gogoz dira. Bertan izena eman duenak gogoko duelako apuntatu da. Ikastolatik atera eta beraien gunea izaten da. Gaztetxoek aukera hau emateko eragile bakoitzak ahalegin itzela egin du. Gurasoekin araudiak azaltzeko bilerak egin dira. Hau dena martxan jarri eta gero gelditu da.

Inoiz baino garrantzitsuagoa elkarlana.

Eskutik goaz eragile guztiak, Eskola Kirola baimentzen dutenerako prestatzen. Usurbilen eragile guztiak batera gaude. Gure aldetik dena ari gara jartzten, hau aurrera eramateko. Ona da elkarlan hau egotea. Pandemia aurretik ez genuen ikusten agian eragile batek edo besteak zuen errealitatea. Egoera hau ondo etorri zaigu denok elkarlanean egon eta eragile bakoitzak duen egoera ezagutzeko.

“Haurrei nahi dutena egiteko aukera eman behar zaie”

Eragileon arteko elkar ezagutza ere bultzatzen ari da egoera.

Hau herri txiki bat da, aukera oso zabala da. Azkenean haurrei nahi dutena egiteko aukera eman behar zaie. Garrantzitsuena, haurrek Usurbilen kirola egiteko aukera izatea da. Hor dator beste kontraesana; kirola osasuntsua izan eta egin behar dela, haur sedentarioak ez ditugula nahi esaten ari gara eta kendu dena kirola da.

“Etenaldi berri hau beste kolpe bat izan da”

NOAUA! Bigarren etenaldi hau ulergaitzagoa izan daiteke, kalean gabiltzala jakinik.

Ez da ulertzen azkenean kalte-tuak beraiek izatea eta jardue-ra fisikoa egiten ez uztea. Uda-berrikoa itxialdi orokorra izan zen, ez zegoen inor kalean. Dena gelditu zen. Orain geldirik dago kirola baina zabalik daude parkeak, kalera joan daitezke. Kirola egiten zuten pertsonekin ikastolan egoten segitzen dute. Berdinak gara diote. Ez dute ulertzen zergatik ikastolara bai eta kirola ez, eskolaz kanpoko beste ekintzak bai eta kirola ez, kanpoko espazioetan egin daitekeenean.

Bigarren etenaldia da honakoa. Ezin jakin berriz martxan noiz jarriko duten eta etenaldi berriak ez ote den egongo.

Ziurgabetasun handia dago. Kezka handiena haurrek eragiten digute, erdigunean haiek baitaude. Azkenean kaltetuak beraiek dira.

Egoera honek eragin kaltegarriak izan ditzake.

Azkenean Eskola Kirola uzten badute, gero bueltatzea oso zaila da. Garrantzitsua da ohi-tura onak hartu eta mantentzea. Gaztetxoak denera ego-kitzen dira gainera, gu baino hobeto.

Maila fisikoan, emozionalean... Eskola Kirolaren onurak anitzak dira ezta?

Bereziki orain behar handiena alor emozionalean zegoen, gentozen egoeratik gentoze-



“Gurasoek garbi izan dute kirola beharrezkoa dutela eta segurua dela. Denon artean lanean jarraitu behar dugu”.

ERAGILEAK

“Aurrez aurreko hezkuntza

berreskuratzeko apustu sendoa egin da eta ondo atera da. Kirolean apustu berdina egin behar zuten, segurua baita”

lako. Martxan jarri zenean oso alai eta gogotsu zeuden, gustura. Etenaldi berri hau, beste kolpe bat da. Berriz martxan jartzean seguru gogotsu itzuliko direla. Ikastolan astero galdetzen digute ia berriz hasi ote den.

Adi daude ezta?

Horretara daude. Egunak pasa ahala zain dira ia noiz aldutuko den araudia, berriz noiz hasiko diren.

Erantzuna argia da, baina egin beharreko galdera. Haurren beharrak kontuan hartu dira hilabeteotan?

Aurrez aurreko hezkuntza berreskuratzeko apustu sendoa egin da eta ondo atera da. Kirolean apustu berdina egin behar zuten, segurua baita. Eskoletarako protokoloak jarriak daude, mantendu ditzagun baita kirol arlorako. Kasuak egongo dira baina protokoloak horretarako daude, ez dena bertan behera uzteko. Klase batean positibo bat badago, klase hori konfinatzen da...

Baina ez hezkuntza sistema osoa ezta?

Hori da. Horregatik hartu ditugu neurriak; talde txikiagoak, kontakturik gabekoak... Positiborik egonez gero, seiko talde hori etxera, baina besteekin jarraitzen duzu, ez duzu herri oso bat geratzen kirol arloan. Protokoloa ona da. Kirola garrantzitsua da fisikoki, sozialki, emozionalki eta batez ere adin honetan, psikomotrizitate aldetik. Gorputzaren garapena oso garrantzitsua da azkenean eta kirolak ekarpen handia egiten du. Balore asko lantzen dira; errespetua, autoestima...

Familietan zer sumatu duzue?

Egoera ziurgabe honetan beldurra egon dela sumatu dugu. Ezin zuten jakin zer gertatuko zen, batzuk badaezpada ez dute izena eman, beste batzuk egoeraren bilakaera ikusteko zain geratu dira... Baina beste batzuk zuzenean Eskola Kirolaren aldeko apustua egin dute, gauzak ondo egiten ari zirela ikusi dutelako eta hori ere eskertzekoa da. Eskerrik asko Eskola Kirolean izena emateko apustua egin duten familia guztiei. Gurasoekin izan genuen bileran argibide asko eman zitzaizkien nola izango zen kirola Usurbilen. Neurriak argi izan zituzten. Horrek beraiei segurtasun eta lasaitasun handia eman die; kirola egingo dute baina modu seguruan. Gurasoek garbi izan dute kirola beharrezkoa dutela eta segurua dela. Denon artean lanean jarraitu behar dugu.


ADA
-MASAJEAK-
633 36 22 33
erreka-txiki 1, USURBIL

Zuen publizitatea hemen
 **943 360 321**
publizitatea@noaua.eus

URDAINTZI S.L.
Eraikuntzak


urdaintzi@euskalnet.net
IT-ak
egiten dira
649 43 54 75
943 36 72 64
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

“El Drogas” dokumentala eskainiko dute abenduaren 18an Sutegin

Enrique Villarealen bizi-tza aztertzen duen dokumentala proiektatuko du Usurbilgo Udalak abenduaren 18an 19:00etan Sutegiko auditorioan. Ohi bezala, izena aurrez bideratu beharko da usurbilkultura.eus atarian. Sarrerak 5 eurotan bideotatik eskuratu ahalko dira. Gogoan izan, 78 lagunentzako lekua egongo dela kultur-etxe-ko auditorioan.

“Ibai bat balitz bezala, Enrique Villarrealen irudiaren dimentsio eta alderdi guztiak aztertzen dituen dokumental biografikoa” osatu du Natxo Leuzak. Bertan, *El Drogas* kantariak gain, beste hainbat aurpegi ezagun agertuko dira; tartean, Fito Cabrales, Rosendo Mercado, Gorka Urbizu, Christina Rosenvinge...

Ahots guztion “giza erretatu horretan, memoria indibidualak eta kolektiboak bat



El Drogas ikusteko sarrerak usurbilkultura.eus atarian daude salgai 5 eurotan. 80 minutuko iraupena du gaztelaniazko dokumental honek.

EL DROGAS

“Fito Cabrales, Rosendo Mercado edota Gorka Urbizuren testigantzak batu dituzte dokumentalean”

egiten dute, eta rock-and-roll-eko irudi garrantzitsuenetako baten ibilbide historiko eta bi-

zigarrian sakontzen du”.

Natxo Leuzak zuzendu duen “istorio emozional honetan, artista berezi honek hartu dituen aurpegi eta bide ezberdinak ikusi ahal izango ditugu. Beste aldean dagoe-na lortzeko oker dabilen izaki baten istorioa da hau. Hau da Enrique Villarealen *El Drogas*-en historia”.

Jardunaldi berria Andatzako altxorrez

“Andatza: errotrariak, mugarriak eta aztarna arkeologikoak”, jardunaldien baitan bigarren saioa iragarri du Usurbilgo Udalak abenduaren 16rako. “Errotrariak eta mugarriak” hizpide izango dituzten solasaldia antolatu dute 18:30ean Sutegiko auditorioan. Asier Agirresarobe, Yoseba Alonso eta Javi Castro ariko dira hizlari lanetan. “Javi Castro ikerlariak Andatzan

egindako lanari esker, munduan harrobi kopuru gehien duten bost udalerrien artean dago Usurbil: 24 harrobi eta 129 errotrari topatu ditu. Halaber, mugarri pribatuak zein publikoak daude Andatzan. Pribatuen artean daude Orreagako Andre Maria kolegiatarenak, historia luzea dutenak”.

Aurrez izena eman

78 lagunentzako lekua egongo



Abenduaren 16an egingo da hitzaldia Sutegin.

da kultur etxean. Hitzordurako izena aurrez bideratu beharko da, abenduaren 14a baino lehen, usurbilkultura.eus atarian.

Ostalaritza babesteko elkarretaratzea

“Herri bizi baten alde... aurrera ostalaritza!” aldarri-pean mobilizatzekoak ziren sektoreko langile eta herritar-rrak abenduaren 8an Usurbilen. Xehetasun gehiago hurrengo astekarian.

Pelaioenea eraikitzen

Kalezarko eraikinari barrutik forma emateko prozesuak aurrera darrai. Iragan astean kalezartarren auzo ekipamendua zehazteko bigarren gogoeta saioa egin zuten Haur Eskolan. Ostegun honetarako (abenduak 10), eraikin berean kokatuko den Emakumeen Etxea definitzeko hirugarren parte hartze saioa deitu du Usurbilgo Udalak 18:00-20:30 artean Artzabalen. “Jarduerak eta zerbitzuak definitu eta espazioa nola antolatu” hortxe ahotan hartuko duten gaia. Izena aurrez bideotatik eman beharko da: parekidetasuna1@usurbil.eus 943 377 110.

Finalerdietara iritsi da Miriam Arrillaga

Amaia Aldai-Oihana Orbegozo eta Patri Espinar-Narrea Agirre bikoteek jokatuko dute Binakako Master Laboral Kutxa Txapelketako finala. Patri Espinar-Narrea Agirre bikotea 22-18 nagusitu zen Ainhoa Ruiz de Infante-Mirian Arrillagaren aurkako finalerdian.

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

Patri
barkariak EGUNERO
afariak. ostegunetik larunbatera
© 943 362725 · © 688 690 361

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak
Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

ETXEBIZITZA**Salgai**

Kontratu finkoa daukat eta Usurbilen edo Lasarten kontratuarekin eta eroldarekin alokairuan etxe bat edo logela bat hartuko nuke. Fernandorengatik galdetu: 675886442.

91m² pisua salgai Txaramunto kalean. 3 logela, sukaldea, 2 komun, egongela. 11m² terraza, 8m² trastelekua, 24m² garajea erosteko aukera. 678949958.

Etxebizitza salgai Kalezarren: 79m² berritua, 2 gela, komuna, sukaldea, jangela, egongela, harrera. Dena kanpoaldera. Ganbara handia partekatua. 35m² garajea aukeran. 686462705

Alokairuan

Usurbilgo erdigunean gela bat alokatzen da gizaseme langile edo jubilatu bati. Nahiego eus-kalduna izatea. 687348223

Alokatzeko etxe baten bila ari naiz. Bi pertsona gara eta txakurra daukagu. 675189500

Alokatzeko etxe baten bila ari naiz. Bi pertsona gara eta txakurra daukagu. 675189500

MOTORRA**Salmenta,****garajeak**

Atxegalden garaje bat nahiko genuke alokairuan edo erosteko. 628498326

Nissan Note 1600 gasolina kotxea daukat salgai, GRD matrikuladuna. 634416863

Volkswagen "escarabajo" bat saltzen dugu. Kotxe klasikoa baina oso egoera onean dago. 656704299.

Santuenea auzoan trastero txiki baten bila nabil. 626 735 354

LANPOSTUAK**Lan eskaintzak**

Emakume bat behar da umeak zaindu eta etxeko garbiketa egiteko; Familia zamarik gabekoa. Haurren zaintzan esperientzia izatea beharrezkoa. Nahiago da euskara ondo menperatzen dabilen pertsona izatea. 638738505

Game Masterra behar dugu Quantum Escape Room-en. Gaztea bazara, eta jokoak nahiz ihes gelak gustatzen bazaizkizu bidali CV info@quantum.eus helbidera

Usurbilgo neska edo mutil bat behar dugu, ingeleseko klase partikularrak emateko. 608201745

Txiribogan asteburuetarako lan-gileak behar dira. Interesatuok

hona deitu: 629 951 931.

Sukaldari laguntzaile bat behar dugu Lukainategi erretegiari. 680 483 164

LANPOSTUAK**Lan eskaerak**

24 urteko neska gaztea. Arratsaldez umeak zaintzeko eskeintzen da. 695617001

Emakume usurbildarra naiz eta lan bila nabil, umeak zaintzeko edo etxekolanak egiteko. 627184674.

Ingeleseko irakaslea naiz baina bestelako lanak egiteko ere prest dagoen emakumea naiz. Etxeko lanak, umeen zaintza edo heldue- na. 631746521.

Pertsona helduak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. Interesatuak deitu: 631 489 128.

Astelehenetik ostiralera orduka, pertsona helduak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. 631157290.

Pertsona helduak zaintzeko gizonetako eskaintzen da. Lanaldi osorako edo orduka lan egiteko prest... Esperientzia eta erreferentziak ditut 603595656.

Udan umeen zaintzaile lanetan edo klase partikularrak emateko prest nago Usurbilen. 648059422

Saio partikularrak emateko eskaintzen naiz (edozein adinetako

haurrei). Irakasle titulua dut eta iaz ikastolan jardun nintzen klasea ematen. Ingelesez ere eman ditzaket saioak. 662127029.

Ekaina, uztaila eta abuztuaren haurren zaintzaile lanetan edo partikularreko irakasle gisa jardun nahi dut. Esperientzia zabala dut alor honetan. 688695958

Emakume bat etxeko lanak egiteko edo adinekoak zaintzeko prest. 664192760 / 722483994.

Esperientzia eta erreferentziak ditut. Etxeko lanak, pertsona helduak zein umeak zainduko nituzke, orduka zein egun osoz. 602830982

BESTELAKOAK

Perikito bat galdu da Punta-pax inguruan. Urdina, bularraldean lumak galduta ditu. Topatu baduzu, deitu hona: 675007048.

Mendiko bizikleta bat salgai 450 euro, negoziagarriak. 646715903 (Maidier)

Kutxa bat eta 6 zentimetroko lodieradun egurrezko bi mahai salgai. 618 009 069

Zaldi bat salgai. 2013koa. Nuria Domatua. Burukoa, arnesa eta eserlekuarekin. Informazio gehiago Amaia 943341900 eta Joxan 699870308.

Alabak giltza batzuk galdu ditu, astelehen ostegun bitartean, Torre Eiffel duela giltza kate gisa. Topatu badituzu, hona deitu: 617002046

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburak... Atalluko Garbigunean, doan hartu daitezke. Astelehenetik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00.

Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Amenabar botika (Iehen Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta ..	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiardo Kiroldetgia.....	943 372 498	Kutxabank.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco SabadellGuipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneako Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkarreza Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	692 898 492	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaua! Kultur Elkartea.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

Zorionak Intza!

Zorionak Intza zure 8. urtebetetzean. Muxu handi bat etxekoen partez.

**Goardiako farmaziak**

Osteguna 10 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Ostirala 11 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Larunbata 12 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Igandea 13 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Astelehena 14 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Asteartea 15 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Asteazkena 16 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian dituzue ikusgai.

Osteguna 17 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Ostirala 18 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Larunbata 19 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Igandea 20 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak ireki-
ta egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
URRUTIA-MARTIN-HERNANI
Etxeberri auzoa, 1. Florida
943 55 77 38

Agenda abendua

11 ostirala

- "Emakumeak, elikadura-burujabetzaren protagonistak erakusketa. Kubatarren eta euskaldunen bizipenak". Abenduaren 13ra arte Sutegin. Antolatzailea. Tadamun.

12 larunbata

- Tailerra: "Gabonetako habi apaingarriak". 16:00 Santueneko Auzo Elkarte.
- "Emakumeak, elikadura-burujabetzaren protagonistak erakusketa. Kubatarren eta euskaldunen bizipenak". Abenduaren 13ra arte Sutegin. Antolatzailea. Tadamun.

13 igandea

- Tailerra: "Gabonetako habi apaingarriak". 16:00 Santueneko Auzo Elkarte.
- Lander Garroren "2 urte, 4 hilabete eta egun 1" dokumentala eta solasaldia. 18:00etan Sutegin.

Nekazari kubatar eta euskaldunen egunerokoa, iruditan

Argazki erakusketa honek zortzi emakume nekazari kubatarren eta zortzi euskal nekazarien eguneroko lana biltzen du. Emakumeen biografiak eta 40 argazki baino gehiago ikusgai ipini dituzte Sutegin. Igandean amaituko da erakusketa.

Argazki dokumentalak Josu Trueba eta Pau Collerenak dira, Euskadi-Cuba Elkar-teen eskariz eginak. EHNE-Bizkaiaren laguntza jaso zuten.

Tadamunek antolatu du Sutegiko



Emakumeen biografiak eta 40 argazki baino gehiago ikusgai ipini dituzte Sutegin.

erakusketa eta igandera arte egongo da zabalik.

Datozenak

"Errotarriak eta mugarriak" hitzaldia

Javi Castro ikerlariak Andatzen egin-dako lanari esker, munduan harrobi kopuru gehien duten bost udalerrien artean dago Usurbil: 24 harrobi eta 129 errotarri topatu ditu. Halaber, mugarri pribatuak zein publikoak daude Andatzen. Pribatuen artean daude Orreagako Andre Maria kolegiatarenak, "historia luzea dutenak".

Abenduak 16 asteazkena

- 18:30ean Sutegin.
- Hizlariak: Asier Agirresarobe, Yoseba Alonso eta Javi Castro.
- Hizkuntza: euskara eta gaztelania.
- Izen-ematea: doan, abenduaren 14ra arte, usurbilkultura.eus atarian.
- Antolatzailea: Usurbilgo Udala.

Gabonetako habiak egiteko ikastaroa

Santuenean antolatu duten tailerraren helburua hauxe da: Gabonetako egurrezko habiak egitea, gero, etxeetan ikusgai jartzeko.

Abenduak 12 eta 13

- Ordua: 16:00.
- Tokia: Santueneko Auzo Elkartea.
- Oharra: Covid-19arekin ezarritako segurtasun protokoloa jarraituko da.
- Antolatzailea: Santuenea Auzo Elkartea.



Asteburu honetan egingo dute ikastaroa Santuenea auzo elkarte.

"Indarkeria matxista, Covid-19aren testuinguruan: nola egingo diogu aurre Usurbilen" hitzaldia

Abenduak 17 osteguna

- 18:30ean Sutegin.
- Hizlariak: Norma Vazquez García eta Sheila Melon Lopez.
- Izen-ematea: doan, abenduaren 14ra arte, usurbilkultura.eus atarian.
- Antolatzailea: Parekidetasun Saila.

lnaki Iturgintza
BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA •
ZORU BERO-EMAILA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
info@inakiturgintza.com - www.inakiturgintza.com
600 024 825

www.noaUA.eus
USURBILGO ATARIA

GAR
GRUPO MONROY
BERRITZE ZERBITZU INTEGRALAK
628 45 78 39
reformasmonroy@hotmail.es
TXARAMUNTO 14, 2 C USURBIL

BAZKIDEEN TXOKOA



GABONETAKO ZOZKETAK



Bi saski 2020an zehar
publia jarri dutenen artean
eta beste bi
NOAUA!ko bazkideen artean.

Lau saski zozketatuko ditugu

noaua! euskararen aterpe

Bazkide egiten bazara, opari eder bat jasoko duzu eta zozketa hauetan parte hartzeko aukera 943 360 321 / elkarte@noaua.eus

DOAKO IKASTAROAK LANGILE ETA LANGABETUENTZAT



USURBILGO
LANBIDE
ESKOLA

ABENDUKO ESKAINTZA



HOBETUZ

Fundación Vasca para la Formación Profesional Continua
Langileen Prestakuntzarako Euskal Fundazioa

ESKAINTZA IREKIKO IKASTAROAK

MANTENIMENDUA / ENERGIA

- 2D instalazio termikoen diseinua: Autocad
- 3D instalazio termikoen diseinua: Revit
- Hozteko Zentrala

LANERAKO PRESTAKUNTZA

- 5S Metodologia

FABRIKAZIO MEKANIKA

- Metrologia
- Oinarritzko CAM GIBBS Fresatzailea
- Neurketa hirukoitza MCOSMOS

OSTALARITZA

- Bezeroen arreta ostalaritzan/
jateetxeetako enpresetan
(Ebazteke daude)

ELEKTRIZITATEA / ELEKTRONIKA

- Hidraulika
- IOT - Interneteko Gauzak:
Raspberry eta Arduino



Izena emateko edo informazio gehiago nahi izanez gero:
943 36 46 00 (Luz. 78) - 667 415 818



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEGUNTZA, HONDAKIA POLITIKA
ETA NEURRIEN SARIA
DEPARTAMENTO DE INNOVACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Etarte bidea, 9 (Zubieta auzoa)
20170 Usurbil (Gipuzkoa)

CIFP USURBIL LHII

www.lhusurbil.eus
ursos@lhusurbil.eus



Zozketa

Urbil Gabonetako Saskia



**50" Tv, bizikleta, erlojua, eraztuna,
loteria, kolonia, arropa, oinetakoak, aisia...**

Denda bakoitzeko opari bat, Eguberri hauetan zuetako batek Urbileko zatitxo bat etxera eraman dezan. Saski osoa ezagutu ezazu urbil.es-en.



Gure doako Urbil App-an izena-eman dezakezu, edo, nahiago baduzu, gure Bezeroenganako Arreta Gunean lagunduko zaitugu. Zozketaren oinarri legalak urbil.es-en



BLOG



urbil.es